



Ebazpena, Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariarena, zeinaren bidez herritarrei aurretzeko kontsulta egiten baitzaie kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzara arautuko duen xedapen orokor bat egiteko.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak egokitzen du xedapen orokor bat egitea kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzara arautzeko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak herritarren iritzia jasoko du kontsulta publikoan, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik.

Ebazpen honen bidez, manu horretan xedatutakoa betetzen da, eta herritarrak berariaz gonbidatzen dira informazioari buruzko iritzia ematera. Informazio horretan, honako hauek jasoko dira: araua onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, konpondu nahi dituen arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Lehenengoa. Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak hainbat finantza-neurri ditu babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriari buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren (aurrerantzean 39/2008 Dekretua) 41. artikuluan eta hurrengoetan jasotako jarduketara babesgarriak egiteko.

Honako hauek dira jarduketara babesgarri horiek: errentamenduan lagatzeko sustapena, babes publikoko etxebizitza eskuratzea, alokairurako etxebizitza erostea, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzea, errentamendua helburu duen birgaitzea, etxebizitza publikoa sustatzeko lurzoria eskuratzea, zuzkidura-bizitokiak sustatzea eta eraikitzea, eta erabilera-lagapeneko erregimen kooperatiboko etxebizitzak sustatzea.





Sail honek jarduketa babesgarri horiek egiteko aurreikusitako finantza-laguntzak honako hauek dira:

- Finantzaketa kualifikatua: mailegu kualifikatuak eta obra-ziurtagirien banku-deskontuak.
- Zuzeneko laguntza ekonomikoak: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eta administrazio honek mailegu kualifikatuen eta obra-ziurtagirien deskontu-eragiketen interes-tasen subsidiazio osoa edo partziala.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila kreditu-erakundeekin lankidetzan aritu izan da tradizionalki, jarduketa babesgarri horiek eta finantza-laguntzak ahalbidetzeko finantza-lankidetzako hainbat hitzarmenen bidez.

Jarduketa babesgarriei dagokienez kreditu-erakundeek emandako mailegu kualifikatuen interes-tasak aldian-aldian arautu behar dira dekretu bidez, 39/2008 Dekretuaren 43.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arlo honetan emandako azken dekretua abenduaren 26ko 210/2019 Dekretua da, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzakoa eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa.

Dekretu horren ondorioz sinatutako hitzarmenen indarraldia amaitu egin da.

Horregatik, sail honek egokitzen du xedapen orokor bat egitea, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko jarduketa babesgarriei dagokienez kreditu-erakundeen eta administrazio honen artean beharrezkoa den finantza-lankidetzarekin jarraitzeko.

Bigarrena. Helburuak.

Dekretu honen helburua da lehen aipatutako 39/2008 Dekretuaren 41. artikuluan jasotako jarduketa babesgarriak egin ahal izatea, batez ere errentamendu-



erregimeneko babes publikoko etxebizitza gehiago izatea eta ahalik eta etxebizitza gehien birgaitzea.

Hirugarrena. – Konpondu nahi diren arazoak.

Konpondu nahi den arazoa honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen bizitegi-larrialdiko egoera lehengoratzeko Sail honek babesgarritzat eta gaketzat jotzen dituen jarduerak egiteko finantzaketa lortzeko zailtasuna.

Laugarrena. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Proposatzen den arau-proposamena dekretu berri bat da, kreditu-erakundeek emandako mailegu kualifikatuei aplikatu beharreko interes-tasa berriak jasoko dituen, babes publikoko etxebizitza bat erosteko aitortutako maileguak berandutuz gero berrerosteko bermearekin jarraituko duena eta lankidetzaren berri bat ezarriko duena.

Gure ustez, ez dago planteatutako proposamena arautzen ez duen alternatibarik.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Herritarrei alde aurreko kontsulta egitea, hamabost egun balioduneko epean, kreditu-erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzaren arautuko duen xedapen orokor bat egitea xede duen xedapen orokor bat egin aurretik.

Bigarrena. Ebazpen hori iragarki baten bidez argitaratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta azaldutakoari buruzko iritzia emateko gonbita egingo zaie herritarrei.

ETXEBIZITZAKO PLANGINTZAREN ETA PROZESU ERAGILEEN ZUZENDARIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA

ETXEBIZITZA ETA
HIRI-AGENDA